

**IPAR EUSKAL HERRIKO HITZA**



Joanes Etxebarria abendua 15, 2017

# Aldudeko ibarra leihoak irekitzeko ahaleginetan

AIBA elkarteak, barruan Aldude ibarreko hiru herrietako hautetsiak dituela, ikerketa bat egin du, etxe huts guztien jabeekin mintzatuz, CAUE elkartearen laguntzarekin. Ikerketa asteazkenean aurkeztu zuten jendaurrean eta orain ibarrean bizi nahi luketenengana joko dute, bien arteko zubiak egiteko gero.

• Michel Ernaga, Urepeleko auzapeza: “Ez du balio lotizamendu egitea eta etxe horiek abandonatzea” Aldudeko ibarreko biztanleak, bereziki AIBA Aldudeko Ibarra Beti Aintzina elkartearen ari direnak, ez dira etsipenean eroriko. Ibarrek bizi dituen zailtasunez jabeturik, gogoeta eta inizatibak eramaten dituzten azken urteetan. Aurtengo otsailean *Hitza*-k Kintoa Mugi inizatibaren berri eman zuen, ibarrean dabilen autobus baten zergatiak azaltzeko. Aldudeko ibarreko ate irekitzeetan, bi urtetik behin, gogoetak barnatzen doaz. 2012an hasi ziren pentsatzen ibarra nola ikusten zuten 2030. urtean. “Hortik gai anitz atera ziren eta 2014an mugaz gaindiko harremanak aipatu ziren; eta 2016an *herrian laketu*: etxe hutsak, mugikortasuna eta kanpotik jin biztanleen integrazioa”, xehetzen du elkarteke kide Maitexa Alfarok.


Etxe hutsena da orain lantzen dutena. Leiho itxiak deitu zituzten hastapen batean, baina CAUE Arkitektura eta Hirigintzako Aholku Elkartearekin ikastaro gisara ikerketa eraman duen Pauline Texier urepeldarraren erranetan, komeni da desberdintzea “leiho itxiak —urtean batzuetan zabaltzen direnak— eta etxe hutsak”. 220 etxe huts zenbatu ditu orotara Alduden, Bankan eta Urepelen, horien erdia bigarren etxebizitzak edo alokairuzkoak direlarik:

GIZARTEA

**Ikastolak, Astean Lau Egunetan Berriz**  
Joan den larunbatean bozkatu zuten Seaskak guraso, irakasle eta langileen ordezkariak lau eguneko astera itzultzea. Aldekoak %46,89 zir eta lau egun eta erdiko astea atxikitzearen aldekoak, %43,58.



**Urte Bat, Lan Anitz**  
Euskal Hirigune Elkargoa sortu eta urtebetera orain arte iragandakoaz eta hemendik aitzina eraman beharreko urratsez galdetu die 'Ipar Euskal Herriko Hitza'-k alderdi nagusienetako ordezkariak.



**Adineko Pertsonak Autonomia Eske**  
Herri txiki eta urrunduetako adineko pertsonen arazoak dituzte autonomian bizi ahal izateko. Horretan laguntza eman nahi dute Etxeka elkarteak Zuberoan eta Donapaleuko zahar etxeak Amikuzen, bizitegi kolektiboak eraikiz.

helburua zen etxeak salgai baziren eta beste batzuk interesatuak baziren, harremanetan ezartzea ez bigarren etxebizitza bezala salduak izateko”.

Etxe horiek zerrendatzen, jabeekin mintzatzen eta sailkatzen lau hilabeteko lana ukan du Texierek: “Kriterioen arabera sailkatu ditugu herri eta auzoen arabera, etxearen tamaina, estaia kopurua, eraikitze data —materialen ideia bat ukateko—, zenbat denboraz huts egonak diren eta etxearen itxura barne eta kanpotik”. Datu horien arabera argitzen ahalko baitute, etxearen tamaina eta bere egoera kontuan harturik, “zenbateko gastuak izan daitezkeen berritze lanetan”. Ikerketak, gainera, hiru herrietako etxe huts guztiak kontuan hartu ditu.



### Etxeari atxikimendua

“Gure helburua zen etxeak salgai baziren eta beste batzuk interesatuak baziren, harremanetan ezartzea ez bigarren etxebizitza bezala salduak izateko”. Maitexa Alfarak aipatzen du, haatik, helburu horren giblean mamu gisako bat bazela: “Anitzen sortetxeak dira etxe horiek, eta badakigu Euskal Herrian atxikimendua badela horrekiko”. Horregatik behin eta berriz azpimarratzen du AIBako kideek ez dutela “jujamendurik ekarri nahi jabeek egiten dutenaz”. Ez dituzte ezinbestean saltzera pusatu nahi ere, baina erdibideak ere

badirela dio, etxe hutsen jabe batzuek etxe horietan bizi nahi luketelako gerora, adibidez. “Hara bizitzera joan artean, alokairuan ezarri daiteke adibidez. Bultzada bat ematea da helburua”.

Etxeari atxikimenduaz kontziente, Pauline Texier AIBako batzorde txiki batekin bildu zen lanean hasi aitzinetik: “Erran zidaten gaia *tabu* zela eta kasu egin beharko nuela jabeekin mintzatzean. Uste nuen jabe horiek uko egingen zidatela. Azkenean denek, batek ezik, izugarri ontsa hartu naute. Batzuek etxearen historia guztia kontatzen zidaten, kontatzeko beharra bazuten zinez”.

Asteazkenean ikerketaren emaitzak aurkeztu zituzten. “Kasu bakoitza berezia” dela ohartu bada ere, Texierek kategoria batzuk larriki marraztu ditzake hala ere jabeen artean: “Badira erraten dutenak etxea haurrentzat atxikitzen dutela; beste batzuek zerbait egin nahi lukete alokatzeko, baina ez dute dirurik berritzeko; badira 30 eta 40 urte artekoak gerora etxe horietan proiektatzen direnak; badira ere etxaldearen arditegi gisara erabiltzen dituztenak, haien artean etxea ez da gehiago etxe ere. Badira ere oinordekotza finkatu gabe duten etxeak...”.

Dinamikak ez du interes gutxi, baina zailtasunak ere hein berekoak izanzen direla dirudi. Etxeen prezioa, beste leku anitzetan bezala, ez baita beti balizko erosleek paga lezaketenaren heinekoa. Gainera, etxe huts horiek ez dira beti bilatzen duenarentzat egokiak ere, Maitexa Alfarak dionez: “Badira herri barneetako etxeak, horiek ez dute baitezpada lurrik; eta ibarrera bizitzera jitea kanporik ez ukateko... hori zailtasun bat da ene ustez. Etxe handiak ere. Partekatzen badituzu... ez dakit jendeak prest direnez hirietan bezala etxe bat partekatze”.

Etxe hutsen zerrendatze eta analisia egin den bezala, orain AIBA eta CAUE elkarten partaidetzak urrats berri bat egingen du erosle potentzialengana. Informalki egina bazen ere, Texier inkesta berri batekin hasi da asteazkenean aurkezpenaz geroztik, ibarrean bizi nahi luketenengana joanez: “Orain jabeekin mintzatu naizela, iduri zait sinpleki jendeen arteko harremana lotu behar dela, gisa horrez aitzinatu gaitezke”.

Erakunde publiko desberdinekin bilduak dira jadanik, lehen bide batzuk ikertzeko, bigarren inkesta egin artean, etxe huts horiei bizi berri bat emateko laguntza bila. Ibarrean biztanle berriak izatekotan, dena den, beste aterabideak zailago izan daitezke Alfaren ustez: “Badakigu ere geroz eta zailago izanzen dela etxe berriak egitea, eraikitze baimena zaila izanzen baita ukaiteko”. Urteetako dinamika ez da abiadura handikoa, eta lana ziurki egiten ari dira, etxe huts batzuek bederen, leihoak berriz ireki ditzaten.



### Pozoirik Gabeko Lanera Ohitzen

2017ko urtarrilaz geroztik herriek ezin dute produktu kimikorik baliatu berdeguneak artatzeko. Baratzezainen ofizioa arras aldatu dela diote Kanboko herriko langileek, lehen e: bezala eskuz ari direlako belar kentzen. 2019z berriz, norbanakoei iritsiko zaie debekua.



### Prefetak Berriz Bide Judizialari Ekin Dio Baionako Herriko Etxeak Euskoa Erabiltzearen Kontra

Prefetak Euskal Moneta eta Baionako herriko etxearen arteko hitzarmenaren kontra jo du oraingoan. Joan den astean Paueko auzitegi administratiboak lehen prozedura bertan behar utzi zuen (Baionako herriko etxeak Euskoa baliatzeko hartu deliberoaren kontrako), bai prefetak bi parteen arteko hitzarmenaren kontrako prozedura ireki du oraingoan.

PARTEKATU ARTIKULU HAU

Facebook

Google+

Twitter

Aurreko albistea



Tentsio handiko lineak ezartzeko hiru proiektuk alarma piztu dute

Hurrengo albistea

350 pertsona bildu dira Barkoxeko ahate hazkuntzako arduradunari sostenguz

